DONOSTIAKO TRIATLOIA, ONDITZ OROITUZ

OHAR GARRANTZITSUAK

ONDITZ OROITUZ TRIATLOIAREN Elkarte antolatzaileak, Atlético San Sebastian, bere esku dauden neurri guztiak hartuko ditu ekainaren 24an eta 25an lapurretak saihesteko. Horretarako segurtasun zerbitzua kontratatuko du, eta ahal dituen ahalegin guztiak egingo ditu. Baina triatleta orok jakin behar du ebasketaren kasuan kluba ez dela horren erantzule egingo.

Jakin badakigu zein egoera delikatua bizi dugun. Horregatik, azpimarratu nahi dugu proba bertan behera utzi behar izanez gero, inskripzioaren zenbatekoa oso-osorik itzuliko dela, eta txartelaren gastua (-0,60 €) soilik kenduko dela, kirolari bakoitzak bere gain hartu beharko baitu.

ARAUDIA

1. art. 36. DONOSTIAKO TRIATLOIA, ONDITZ OROITUZ, Atletico San Sebastian Elkarteak antolatzen du. Eta proba bi sexuetako kirolari guztiei zabalik dago, federatuei eta federatu gabekoei.

2. art. Distantzia laburrekoa da, eta honako proba eta distantziak izango ditu:

- Igeriketa: 1.500m
- Txirrindularitza: 40km
- Oinez egiteko lasterketa: 10km

45 minutuko muga bat dago lehenengo segmentua amaitzeko. Eta beste bat, lehenengo bi segmentuak osatzeko, 2 ordu eta 30 minutukoa izango dena. Proba osoa egiteko gehienezko denbora, 13: 00ak arte.

3. art. Irteera 2023ko ekainaren 25an izango da:

- 09:15ean, federatutako emakumezkoen irteera.
- 09:30ean, federatutako gizonezkoen irteera.

4. art. Gizonen eta emakumeen Kategoriak

- Juniorrak: 2004 eta 2005 urteen artean jaiotakoak.
- 23 urte azpikoak: 2000 eta 2003 urteen artean jaiotakoak.
- Absolutuak: 1984 eta 1999 urteen artean jaiotakoak.
- Beteranoak 1: 1983 eta 1974 urteen artean jaiotakoak.
- Beteranoak 2: 1973 eta 1964 urteen artean jaiotakoak.
- Beteranoak 3: 1963 edo aurreko urteetan jaiotakoak.

5. art. Proba Euskadiko Triatloi Federazioaren araudiaren arabera egingo da. Arduraduna Epaile Nagusia izango da, eta ETFren epaileek lagunduko diote.

6. art. Materialaren kontrola boxeetan 07:45ean hasiko da, eta 9:00etan bukatuko da. Kontrola egiteko beharrezkoa izango da NAN aurkeztea. Kategorien araberako iritsiera-zerrenda bat egongo da.

7. art. Igeriketako txanoa hondartzara sartzen denetik, probaren lehen zatia bukatu arte jantzita eramango da. Dortsal bakarra emango da, txirrindulartizako zirkuituan gorputzaren atzekaldean jarriko da eta oinezko lasterketan gorputzaren aurrealdean. Kasu bakoitzean, ondo ikusteko moduko leku batean. Era berean, bizikletaren sektorerako pegatina zenbakitu bat emango da. Dortsalak ezin izango dira ez tolestu ez moztu. Artikulu hau betetzen ez bada, deskalifikatu egingo da.

8. art. Istripuren bat gertatuz gero, parte-hartzaileak erantzukizun orotatik salbuesten ditu antolatzaileak.

9. art. Zirkulazioa itxiko da soilik lasterketarako norabide-erreian; beraz, parte-hartzaileek zirkulazio-kodea bete beharko dute, galtzadaren eskuineko ertzetik ahalik eta hurbilen zirkulatuz eta bihurguneetan ebaki gabe.

10. art. Boxeak, 2023ko ekainaren 25an, 7:45ean irekiko dira eta 13:30etan itxiko dira. Adierazitako orduaren ondoren, antolatzaileak ez du bere gain hartuko bertan utzitako materiala.

11. art. Ezin da kanpoko laguntzarik jaso, ezta inolako ibilgailuren atzean ibili ere. Draftinga ("chupar rueda" edo "zurrupatu gurpila") sexu bereko partaideen artean bakarrik dago baimenduta.

12. art. Eskumena duen agintaritzak (Itsas Kapitaintza, Federazioko Ordezkari Teknikoa, Trafikoko agenteak, etab.) proba bertan behera utzi ahal izango du, proba egiteko gutxieneko baldintzak betetzen ez direla iritzita. Kasu horretan, proba beste ordu edo data batera eramateko aukera aztertuko da. Ezinezkoa balitz, behin betiko ezeztatuko litzateke. Eteten bada, ez da itzuliko inskripzioaren zenbatekoa, salbu eta ezereztea antolatzailearen erantzukizuna denean.

13. art. Antolakuntzak, sei hilabete lehenago egingo dizkie DONOSTIAKO TRIATLOIA, ONDITZ OROITUZ ibilbide-eskaerak agintari eskudunei. Baina behin betiko baimenak denbora tarte gutxirekin jasotzen direnez, antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango zirkuitua azken orduan aldatzeagatik.